



# Debabarrena



Garapen Iraunkorra - Desarrollo sostenible

| Zenbaki berezia | Número especial | Marzo 2010eko Martxoa |

## Debabarreneko Ingurugiro-Praktika Onen Gida / Guía de Buenas Prácticas Ambientales de Debabarrena

Agenda 21: Debabarreneko 8 udalerrriak elkar hartuta doaz iraunkortasunerantz /  
Agenda 21: Los 8 municipios de Debabarrena se mueven juntos hacia la sostenibilidad

### GUÍA DE BUENAS PRÁCTICAS MUNICIPALES DE DEBABARRENA

**Objetivo:** Dar a conocer las buenas prácticas medioambientales de los Ayuntamientos de Debabarrena: Deba, Eibar, Ermua, Elgoibar, Mallabia, Mendaro, Mutriku y Sorluze.

**Áreas temáticas:** Agua; atmósfera y ruido; consumo sostenible; educación y participación ciudadana; energía; gestión ambiental; medio natural y biodiversidad; movilidad y transporte; y residuos.

**Número de buenas prácticas identificadas:** 44

**Se puede consultar en:** [www.debegesa.com](http://www.debegesa.com)  
Apartado Desarrollo Sostenible

“PIENSA EN GLOBAL Y ACTUA EN LOCAL”

Tokian tokiko jardunbide txikiek ekartzen dituzte aldaketa global handiak / Las pequeñas acciones locales son los que generan grandes cambios globales

Ingurugiroa babesteko beharra, klima aldaketaren aurkako borroka, biodibertsitatearen kontserbazioa, kontsumo iraunkorra eta abar luze bat denon aho-

tan dabilzan gaiak dira. Baina, jakinekoea da jardunbide eta asmo on global eta handi horiek ez direla nahikoa, tokian-tokian ez badira beharrezko neurriak hartzen.

*Ejemplo: Pensemos en la reducción del impacto medioambiental si todos los edificios municipales dispusieran de producción de energía renovable; la suma de todos es mucho.*

### Egindako ibilbidea / Camino recorrido

En el año 2000 la comarca de Debabarrena se subió al barco de la sostenibilidad local, aprobando el Plan de Acción Agenda 21 de Debabarrena y sus Ayuntamientos entrando a formar parte de Udalsarea, Red de Municipios Vascos, hacia la sostenibilidad. Los Ayuntamientos (Deba, Elgoibar, Eibar, Ermua, Mallabia, Mutriku y Sorluze), tras unos años de trabajo, aprobaron sus respectivos Planes.

*Hamar urte pasatu dira Debabarreneko Agenda 21 Ekintza Plana onartu zutenetik. Hala ere, ez dugu ahaztu behar aurretik dihardutela iraunkortasunaren alde lanean Debabarreneko Udalek.*

### Etorkezunerako apustua / Apuesta de futuro

Jakin badakigu asko geratzen zaigula egiteko eta hobetzeko; hala ere, hamar urteotako ibilbidean egindakoaren gaineko hausnarketa txiki bat egin nahi izan dugu. Debabarrenean azkeneko urteotan arrakastaz garatu diren esperientzia eta ekinbide eredu garrienen gida txiki bat osatu dugu.

*Queda mucho por hacer y para ello es necesaria la implicación de cada ciudadano/a de Debabarrena.*

### Debabarreneko jardunbide onen gida / Guía de buenas prácticas de Debabarrena

Aldez aurretik esan behar dugu Tokiko Agenda 21-aren barruan dauden udalek gida honetan azaltzen ez diren ekintza ugari burutu dituztela; izan ere, esperientzia eta ekintza esanguratsuenak, berritzaileenak eta besteentzako baliagarri izan daitezkeenak bakarrik jaso ditugu honako gida honetan.

Ondorengo orrialdeetan, gure ibarrean egiten ari garenaren zertzelada batzuk aurkezten dizkizuegu. Udal bakoitzak aurkezten du bere udalerrian garatutako esperientzia bat.




Mallabia.



Ermua, foto: © Urkoi 2007.



Eibar.



Sorluze.



Elgoibar.



Mendaro.



Deba.



Mutriku.



Debabarreneko Garapen  
Ekonomikorako Elkarte  
Sociedad para el Desarrollo  
Económico de Debabarrena



DEBA

## Agenda 21eko Herri-partaidetzarako foroa

*Este foro, dirigido a toda la ciudadanía de Deba, nació en el año 2004 dentro del proceso de Agenda 21 Local y después de 6 años se ha convertido en una herramienta participativa viva que sigue trabajando por mejorar el medio ambiente y el desarrollo sostenible del municipio. Gracias a este foro, se ha fomentado la participación ciudadana y se ha abierto una vía de comunicación constante entre el Ayuntamiento y la ciudadanía de Deba.*

Martxan jarri zenetik, guztira 19 bilera eta 2 irteera ospatu dira eta bertan hainbat gai eztabaidatu eta adostu dira; azpimarratzekoak:

- **Tokiko Agenda 21:** prozesu honen barnean udalerrriaren edo diagnosia osatu eta adostu zen, Deba jasangarriagoa egingo duen ekintza planean proposamenak jaso eta lehentasunak ezarri ziren, eta azkenik, 2009. urtean, ekintza plan honen eboluzioa eta aurrerapen maila aztertu eta eztabaidatu zen.
- **Herriko Ekipamenduak:** 2009. urtean herriko ekipamenduen (haur-eskola, kiroldegia, kultura etxea, eguneko zentroa, anbulatorioa, eskola txikia...) egoera aztertu eta etorkizun hurbil batean herriak izango dituen beharrak eztabaidatu ziren.
- **Artzabal-Casacampo hezeguneeen berreskurapena:** Eusko Jaurlaritzak sustatutako hezeguneeen berreskurapenaren plana aurkeztu zen foroan eta herrita-

rrek plana osatzeko jarduera berriak proposatzeko aukera izan zuten. Gainera, Txingudiko hezeguneeen egindako berreskurapen lanak ezagutzeko eta ikusteko aukera eskaini zitzaizkien partaideei. Azkenik, Debako hezeguneeen lanak bukatu zirenean, bertan egindakoa ezagutzeko irteera gidatua antolatatu zen.

- **Biotopo babestua:** 2006an, Deba eta Zumaia arteko itsaslabarra biotopo babestua izenda-tzeko prozesuan parte hartzeko gonbidapena luzatu zitzaizkien foroko partaideei.

2010ean foroak lanean jarraituko du eta bertan honakoak landuko dituzte, besteak beste: iaz foroko partaideek aurkeztutako lan proposamen bat aukeratu eta abian jarriko dute; Agenda 21eko ekintza planaren 2009. urteko ebaluazioaren emaitzak aurkeztuko dituzte eta Deban egin berri den bizikleta-bideen aurkezpena egingo da.



Foroko partaideak Debako hezegunera egindako irteeran.



EIBAR

## Eibarko "zaraten mapa" egin dute, errepideek eta trenak sortutako zaraten ondorioak neurtzeko helburuarekin

*La contaminación acústica está considerada como uno de los principales problemas medioambientales, que además de perturbar el medio donde vivimos, es una causa de trastornos físicos y de desequilibrios psicológicos en las personas. Eibar, debido a su situación geográfica, se encuentra rodeada de infraestructuras de transporte tales como carreteras y vías del tren. Por ello, el Ayuntamiento a querido estudiar y medir el ruido generado por estas vías de comunicación en el municipio. Así, tras un diagnóstico que se concreta en un "Mapa de ruido", elaborará un Plan de Acción que se desarrollará en un escenario de 5 años, siendo su objetivo evitar los niveles de exposición que puedan tener efectos nocivos en la salud de las/os eibarresas/es, así como la mejora progresiva de la problemática del ruido en Eibar.*

Eibar trafiko dentsitate handia duten bi errepidez inguratuta dago: alde batetik, A-8 autobidea eta bestetik N-630. Era berean, herri barneko errepideetan trafiko ugari mugitzen da. Horrela, Eibarko Udala, zarataren arazoari aurre egin nahirik, udalerrriaren zarataren diagnosia egiten hasi zen 2008an. Diagnosi honetan kale eta errepideetako trafikoak eta trenak sortutako zaratak neurtu dituzte, Eibarko "zarataren mapa" sortuz. Mapa honen bitartez,

herriko gune bakoitzean biztanleek jasaten duten ingurumen zarata adierazten da.

Baina ikerketa ez da hor geratzen, urrats bat gehiago emanez, dagoeneko mapa horretan aurkitutako arazoak konpontzeko asmoarekin, 5 urtean zehar burutuko den ekintza plana osatzen ari da Udala. Plan honen helburua da biztanleengan osasun arazoak sortzen dituen zaratak ekiditeko lanak egitea eta Eibarrek dituen zarata arazoak gutxitzea. Herritarrek plan honen gainean duten iritzia eta proposamenak jasotzeko asmoarekin, diagnosia eta plana bera publikoki aurkeztea aurrez ikusten du Udalak.

Azkenik, nahiz eta plan hau oraindik bukatu gabe egon, dagoeneko Udalak, epe laburrean egingo diren bi obra urbanistikotan, zaratak ekiditeko irizpideak eta neurriak kontuan hartuko ditu.



ELGOIBAR

## Tokiko merkataritza iraunkor baten alde

*Dentro de la campaña "Gure denda, gure poza" el Ayuntamiento de Elgoibar repartió 4.500 bolsas reutilizables y después de 6 meses de campaña ha evitado el consumo de más de 50.000 bolsas de plástico. Este año 2010, el Ayuntamiento continuará fomentando el comercio local a través de varias líneas de actuación.*

Ekimen hau "Gure denda, gure poza" kanpainaren barnean antolatatu dute, bi helburu nagusirekin: ingurumen arloari dagokionez, plastikozko poltsen kontsumoa jaistea; eta merkataritza eta zerbitzu sektoreari dagokionez, herritarrek erosketak herrian bertan egitera bultzatzea.

Elgoibarko etxebizitzetan poltsa berrerabilgarriak banatu zituzten, 4.500 poltsa guztira. Herritarrek poltsa hau edo plastikozkoa ez den beste edozein (karrotzkoa, paperezkoa...) kanpainan parte hartzen zuten 97 establezimenduetan erosteko erabiltzen zutenean, hileko zozketan parte hartzeko txartela jasotzen zuten merkatarien eskutik. Denera, 100.000 txartel banatu eta 5 zozketa egin zituzten: bi bizikleta eta hiru erosketabono banatu zituzten. Kanpainak iraun duen 6 hilabete hauetan 50.000 plastikozko poltsa baino gehiago erabiltzea saihestu dela esan dezakegu, hau da, 300 poltsa-kg. Eta horrek esan nahi du atmosferara 200 kg CO<sub>2</sub> gutxiago isuri direla.

laz bezala, aurrean ere helburuak izango dira merkataritza sektorea dinamizatu eta sustatzea izango dira. Horretarako, hainbat lan-ildo jorratuko dituzte 2010. urtean zehar:

- Sektorearen animazio eta dinamizazioaren alorreko ekimenak, beti ere Merkataritza Elkarteen elkarlana bilatuz.
- Herriko gune komertzialaren eta orokorrean biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten hirigintza arloko ekintzak (peatonalizazioak, argiteria...).
- Merkataritzan eragina duten gaien buruzko ikerketa teknikoak (Merkatu Plazaren berregituraketa, azoka txikia...).



Elgoibarko herritarrek banatutako poltsarekin.



## Programa municipal de educación ambiental de Ermua: 18 años educando para la sostenibilidad

Desde el año 1993, todos los colegios de educación primaria de Ermua participan en el programa municipal de educación ambiental. El Área de medio ambiente del Ayuntamiento de Ermua ofrece un catálogo de talleres y actividades de educación medioambiental y educación para la sostenibilidad que se realizan en el contexto educativo de cada centro. Las actividades se centran siempre en la realidad del municipio y la relación de lo local con lo global. Entre las temáticas abordadas se encuentran: el urbanismo, la movilidad sostenible, el camino escolar, los residuos, el agua, las energías renovables, la biodiversidad, Azterkosta, etc... Los temas se seleccionan para que sean integrados en los proyectos de los centros escolares (Proyecto Curricular de Centro) y los complementen. Además se cuida la complementariedad con otros proyectos transversales como la Agenda 21 Local y Escolar y con la progresiva implantación de las competencias del nuevo currículum.

En las actividades desarrolladas, por el área dirigido por M<sup>a</sup> Asun Ardanza, participan anualmente una media de 800 niñas y niños. Este proyecto ha tenido diversos reconocimientos; el Programa Aztertu de Gobierno Vasco, lo distin-

## Ermuko ingurumen-hezkuntzako udal egitaraua: 18 urte jasangarritasunari begira

guió con una mención especial en el 2007. Además ha sido analizado en publicaciones profesionales como la revista IHITZA y en las 3<sup>a</sup> Jornadas de Educación Ambiental de Euskadi 2002.

1993. urtetik hona Ermuko lehen hezkuntzako ikastetxe guztiek udalak duen ingurumen-hezkuntzako programan parte hartzen dute. Ermuko Udako Ingurumen Alorrek ikastetxe bakoitzaren hezkuntz testuinguruan barneratzen den ingurumen- eta jasangarritasun-hezkuntzako tailer- eta jarduera-eskaintza zabala du. Landutako gaien artean honakoak: hirigintza, mugikortasun jasangarria, eskolabidea, hondakinak, ura, energia berriztagarriak, biodibertsitatea, Azterkosta eta abar.



Visita de escolares de Ermua a uno de los paneles colocados junto al río por el Ayuntamiento.



ERMUA

## Mallabia energia berriztagarrien alde

El Ayuntamiento de Mallabia, consciente de la problemática energética actual y uniéndose a la lucha contra el cambio climático, ha apostado a favor de las energías renovables poniendo en marcha diversos proyectos relacionados con las mismas. Entre las actuaciones realizadas se pueden destacar: la instalación de placas solares en la escuela de Learreta-Markina; la colocación de farolas fotovoltaicas en los barrios rurales que hasta el momento no disponían de alumbrado público; y por último, la puesta en marcha de un proyecto novedoso, donde se ha estudiado la viabilidad de utilizar diversos tipos de energías renovables como pueden ser la solar y la geotérmica o biomasa en 11 caseríos del municipio.

Mallabiko Udalak energia berriztagarrien aldeko apustu garbia egin du azken urteetan eta horien aldeko hainbat proiektu jarri ditu martxan.

Lehendabizi, EVerekin sinatutako hitzarmen baten bitartez, Learreta-Markinako ikastetxean 5 Kw potentzia duten eguzki-plaka fotovoltaikoak (argindarra sortzeko) ipini dituzte.

Bestalde, 2007tik hona, argiztapen publikorik ez zuten auzoetan farola fotovoltaikoak jarri ditu Mallabiko Udalak. Orain arte 57 farola ipini ditu Udalak.

Azkenik, herritarren artean energia berriztagarrien erabilera sustatzeko asmoarekin, Mallabiko baseritarrei proiektu berriztaile batean parte hartzeko aukera eskaini zitzaion; euren baserrietan energia berriztagarriak jartzea, hain zuzen ere. Ikerketa honen ondorioz, honako aukerak identifikatu dira:

- Bi geotermia instalazio ipintzeko aukera (lurraren energia aprobetxatuta).
- Eguzki-energia fotovoltaikoaren (argindarra sortzeko) hamaika instalazio egiteko aukera.
- Gasolio eta propano galdarak aldatzeko aukera beste energia mota bategatik. (biomasa galdarak, esaterako)
- Eta abar



Learreta-Markina eskolako fatxadan jarritako eguzki-panelak.



MALLABIA

## Kilimon ibaian bizia berreskuratuz

Con la finalidad de evitar las inundaciones derivadas de la crecida del río Kilimon a su paso por Mendaro, se ejecutaron varias actuaciones en el cauce del río. Estas actuaciones hicieron que el Kilimon se convirtiera en un canal de hormigón que impedía el desarrollo de vida piscícola. Poco a poco las truchas presentes en el río fueron desapareciendo y un río de aguas limpias como es el Kilimon se fue quedando sin vida. Por ello, el Ayuntamiento impulsó un proyecto con objeto de rehabilitar ambientalmente este tramo del río, permitiendo y favoreciendo la vida piscícola de la misma. Mediante estos trabajos, se ha logrado que el Kilimon sea un río seguro para el ser humano y a su vez esté lleno de vida.

Uholdeak ekiditeko asmoarekin, Kilimon ibaia bideratzeko egin zituzten lanen ondoren, ibaiko arrainak desagertu egin ziren, batez ere amuarrainak. Kilimon ibaiko ur garbietan zegoen bizia

deuseztatu egin zela ikusirik, Udalak ibaia berreskuratzeke eta naturalizatzeko lanak bultzatu zituen. Lan horiek ibaia lehengo egoerara itzultzea zuten helburu, hau da, ibaia berriz ere bizitza egotea. Horrela, 2007an eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, hasi zituzten berreskuratzen lanak. Lehenik, uraren abiadura jaisteko asmoarekin, errearen malda gutxitzeko lanak burutu zituzten. Gero, presa eta presa txikiak eraiki zituzten; honek, ura oxigenatzeaz gain, arraintzako babes-toki egokiak eskaintzen ditu. Gainera, beharrezkoa zen presetan arrainendako igarobide egokiak eraiki zituzten. Azkenik, ubidearen bi alboetan substratu artifiziala jarri eta landaketak egin zituzten eta honela ubideen itxura naturalizatu.

Dagoeneko bi urte igaro dira lanak bukatu zituztenetik eta esan beharra dago Kilimon ibaia poliki-poliki bizia berreskuratzen diharduela.



El Kilimon a su paso por Mendaro.



MENDARO



MUTRIKU

## Arno Berpiztuz: Conservando un Tesoro

*Arno fue declarado Lugar de Importancia Comunitaria (LIC) dentro de la Red Natura 2000. Su encinar es un pequeño tesoro que se debe conservar y por ello, el Ayuntamiento, consciente de su gran valor, ha querido asumir la responsabilidad de la gestión de este entorno con la compra pública de algunas parcelas y la regeneración y naturalización de la poza de Ormola.*

Arno eta bere artadi zoragarria Europar Batasunak babestutako gune bihurtu ziren Natura 2000 Sarearen barnean, ingurune hau, Interes Komunitarioko Habitat izendatua izan zenean. Laster, bere babesean aurrerapauso bat emango da eta Kontserbazio Bereziko Gune izendatuko dute.

Horrela, Udalak, Arnon lur erosketa publikoak egingo ditu; honela, lur hauen kudeaketa, berreskurapena eta babesa Udalaren esku geratuko dira eta ez da pisu guztia partikularrengan geratuko. Bestetik, Ormolako putzua eta bere ingurunea naturalizatzeko lanak burutzen ari dira; putzuko itxidura aldatu dute, ur hori orain arte ibili diren abereek eta animalia basatiek erabili ahal dezaten; ingurunea berreskuratzeko pasa den urtean 800 zuhaitz landatu zituzten eta etorkizun hurbilean putzuan erabilitako plastikoa kendu eta maila geotestila jartzea aurrez ikusten dute, eremu horretako bioaniztasuna ugaltzeko asmoarekin.

Udalaren lana, baina, ez da hor geratzen; herritarrei zuzendutako sentsibilizazio eta formazio lanak ere egin ditu, denon partaidetza beharrezkoa delako ingurune hau babestu nahi badugu. Horrela, iaz, Arno mutrikuarrei gerturatzeko helburuarekin, hainbat ekintza antolatu zituzten Arno Berpiztuz kanpainaren barruan: herritarrek ingurune honekiko duten iritzia jasotzeko inkesta egin zuten, argazki Rally bat antolatu eta herriko gazteekin gynkana dibertigarri bat ospatu zuten.

Udalak badaki hauek lehen urratsak besterik ez direla eta oraindik lan asko dagoela egiteko.



Ormolako putzuan egindako lanak.



SORALUZE

## Soraluze baso bidez: recuperando los bosques autóctonos

*Debido al aprovechamiento forestal llevado a cabo en las últimas décadas en nuestro territorio, nuestro entorno y su paisaje han sufrido grandes transformaciones. Las plantaciones de coníferas han generado la pérdida o el aislamiento de los bosques naturales, descendiendo notablemente la biodiversidad. Por ello, con objeto de hacer frente a este problema, el Ayuntamiento de Soraluze impulsó un proyecto novedoso destinado a la recuperación de nuestros bosques. Se basa en la firma de acuerdos entre propietarios y Ayuntamiento, donde éste asume la gestión sostenible del territorio regenerando los bosques autóctonos. Este proceso se conoce como "custodia del territorio".*

Baso Bidez proiektuaren bitartez, Udalak, bertako basoak berreskuratzeko eta modu jasangarrian kudeatzeko lanak bere gain hartzen ditu eta honekin, Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren ardatz nagusietako bat lortu nahi da; hau da, gure landa inguruneke bioaniztasuna berreskuratzea eta babestea. 2006. urtean hasi zen Udala proiektuarekin, eta bertan, jabe pribatu eta Udalaren arteko hitzarmenak sinatuz, 30 urtean zehar Udala egingo da lursail horien kudeaketaren kargu, baina beti ere bertako landareak landatzeko eta sustatzeko helburuarekin, eta lurraren kudeaketa jasangarria egingez.

Lau urteotan, Udalak 9 Ha edo 90.000 m<sup>2</sup> kudeatzen ditu hitzarmen hauen bitartez. Orain arte Udalak kudeatu dituen lursailetan pagoak landatu eta bertako landaretza berreskuratzeko lanak egin ditu.

Argi dago oraindik lan asko dago egiteko, eta nahiz eta Baso Bidez aurrea eramateko orduan hainbat zailtasun aurkitu dituzten, garrantzitsuen finantzazioa, Udalak bioaniztasuna eta gure basoak berreskuratzeko apustu garbia egiten jarraituko du. Kontuan izan behar dugu, gure basoak berreskuratzean, bioaniztasunean eta paisaian izango dituen onurez gain, hidrologia eta lurraren kalitatea ere hobetzen direla. Gainera, landa-inguruneke bizimodua desagertzen ari dela kontutan hartzen badugu, geroago eta zailagoa izango da baseritarrek eta lursailen jabeek lurrok modu egokian kudeatzea eta egoera honek etorkizunean arazo larriak sor ditzake. Honela, Baso Bidez ekimenaren bitartez, udalerrinari bizia eman nahi dio Udalak.



Karakate inguruan Udalak kudeatutako lursaila.

## Debabarreneko garraio publikoaren mapa interaktiboa laster debegesako web gunean eskuragarri


*Con objeto de fomentar el uso del transporte público de nuestra comarca, desde Debegesa se ha diseñado el mapa de la red de transporte público de Debabarrena. Este mapa, que imita a los planos utilizados en los metros, pronto estará disponible en la página web de Debegesa de forma que se podrá consultar los itinerarios, medios de pago y los horarios del transporte público, tanto de tren como de autobús que discurren por los 8 municipios de la comarca de una forma unificada, accesible y actualizada.*

Kontuan hartu behar dugu Debabarrena eskualde berezia dela; batetik, bi lurralde historiko hartzen dituelako (Gipuzkoa eta Bizkaia), eta bestetik, operadore asko daudelako: Lurraldebus, Bizkaibus, Euskotren... Horregatik, ez zen batera erraza garraio publikoaren ordutegiak eta ibilbideak kontsultatzea.

Arazo horri irtenbidea emateko, Debabarreneko zortzi herrietatik pasatzen eta gelditzen diren autobus eta trenen ordutegien, ibilbideen, geltokien eta ordaintzeko moduen gaineko informazioa bateratu nahi izan du Debegesak.

Horrela, Urtarrilean, Debabarreneko Mugikortasun Mahaia bultzaturik, etxex etxe autobusen ordutegi bateratua jasotzen zituzten 32.000 ale banatu zituzten; horrekin batera, Bizkaia eta Gipuzkoako autobus zein tren zerbitzuetan eskaintzen diren ordaintzeko erak eta deskontuak jasotzen zituen informazio bulletin bat ere banatu zuten.

Orain, gainera, informazio hori guztia eskuragarri egongo da Debegesaren web orrian: [www.debegesa.com](http://www.debegesa.com). Garraio publikoaren mapa modu interaktiboan eta gaurkotuan kontsultatu ahal izango da web gune honetan.



Debabarreneko Udalek (Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendara, Mutriku eta Soraluze), Mugikortasunaren Mahaian bat eginda, garraio publikoaren erabilera bultzatzeko ekimenekin lanean jarraitzeko asmoa dute.

DEBABARRENA